

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## 2. MAILA

### Azterketa idatzia

A

EREDUA

Deiturak: \_\_\_\_\_

Izena: \_\_\_\_\_ NA: \_\_\_\_\_

\*\*\*\*\*

#### Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi zatiak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumen-proba amaitu ondoren, **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

|                          | ARIKETA                 | Puntuazioa gutxienez | Puntuazioa gehienez | Proposatutako denbora |
|--------------------------|-------------------------|----------------------|---------------------|-----------------------|
| <b>Azterketa idatzia</b> | Irakurmena              | 10                   | 20 puntu            | 45 min inguru         |
|                          | Idazmena                | 15                   | 30 puntu            | 60 min inguru         |
|                          | Irakurmena eta idazmena | 28                   | 50 puntu            | <b>1 h 45 min</b>     |
|                          | Entzumena               | 10                   | 20 puntu            |                       |

Azterketa deialdia: **2009ko urria**



## ENTZUMENA

### 1. TESTUA

Britainia Handiko haurdunaldiei buruzko audioa entzungo duzu ondoren. Entzuten duzun bitartean erantzun zuzena aukeratu. 0 zenbakia adibidea da.

#### Adibidea:

0. Zer gertatzen da haurdunaldian?
- Amak gizendu egiten direla, 6 kilo eta 300 gramo inguru.
  - Aitak ez, baina amak gizendu egiten direla.
  - Bai aitak eta bai amak gizendu egiten direla.
1. Zer dela eta aipatzen da 9 hilabeteko "sabel-lehiaketa"?
- Erresuma Batuan aita berrien arteko lehiaketa antolatu dutelako.
  - Galdeketa bateko aita berri gehienek gizendu egin direla diotelako.
  - Aita berriak ere 9 hilabeteetan lehian aritu direlako elkarren artean.
2. Zer diote aitek beren jokaeraz?
- Gehiago jaten dutela amei laguntzeko.
  - Gehiago jaten dutela beren buruekin hobeto sentitzeko.
  - Beti bezala jaten dutela, baina hala ere gizendu egiten direla.
3. "Antojoak" non gertatzen dira?
- Gosea zer den dakiten herrialdeetan.
  - Janaria ugari dagoen herrialdeetan.
  - Herrialde pobreetan eta herrialde aberatsetan.
4. Erresuma Batuko supermerkatuetan zer egin dute?
- Aholkulariak jarri, gantzetan bainatutako janaria aukeratzeko laguntzeko.
  - Aholkulariak jarri, gantzen ordezkariak eta fruten kontsumoa bultzatzeko.
  - Aholkulariak jarri, erosketak egiten ari direnei karroa betetzen laguntzeko.
5. Haurra jaio aurretik, zer egiten dute aitek?
- 10etik 4 jatetxeetara maizago joaten dira.
  - 10etik 2 jatetxeetara maizago joaten dira.
  - Ezin dira jatetxeetara maizegi joan.
6. Noiz konturatzen dira gizonezkoak gizendu egin direla?
- Arropa ez zaiela sartzeko ikustean.
  - Haurdunaldiaren 9. hilabeteetan.
  - Emaztearen gerri-buelta ikustean.
7. Haurra jaiotzen denean, zer egiten dute aitek?
- 5.000tik 1.500ek kirola egiten dute.
  - 5.000tik 1.500 dieta egiten hasten dira.
  - 5.000tik 1.500ek ez dute ez dietarik ez kirolik egiten.
8. Zein da albistearen amaieran ematen zaigun iritzia?
- Haurra jaiotzean, aitek egiten duten ahalegina zalantzan jartzen da.
  - Haurra jaiotzean, bikoteak lanari batera egiten diola aurre.
  - Haurra jaio aurretik eta ondoren ere, aitek gogor egin behar dutela lan.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

|       |     |     |     |     |     |     |     |     |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| 0.- c | 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- | 6.- | 7.- | 8.- |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|

## ENTZUMENA

### 2. TESTUA

Orain, aditu batek haurren lehenengo eskola-egunei buruz hitz egingo du. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean erantzun zuzena aukeratu. 0 zenbakia adibidea da.

#### Adibidea:

0. Zer gertatzen zaio haurrari eskolan hastean?

- a. Taldetik banatu behar du.
- b. Etxea utzi behar du eta taldean sartu.
- c. Gustuko giroan murgilduko da bere taldean.

1. Eskolan zer ikasi behar du umeak, besteak beste?
  - a. Besteen atzetik zain egoten.
  - b. Batzuetan besteen aurretik jartzen.
  - c. Ilaran oztopo ez izaten.
2. Lehen egunean zer gertatzen zaie?
  - a. Erreferentziak bilatu behar dituzte.
  - b. Nortasuna indartu egiten zaie.
  - c. Ezagunak agurtzen dituzte.
3. Nola bidali behar dira haurrak eskolara?
  - a. Arropa berria eta dotorea jantzita, seguru sentitzeko.
  - b. Erantzeko erraza den arropa jantzita.
  - c. Edozein arropa jantzita, kolore alaiak baditu.
4. Zertarako da garrantzitsua haurrari lehen egunetan "txartela" jartzea?
  - a. Bere burua baztertuta ikus ez dezan.
  - b. Izena entzutean ezaguna dela ikus dezan.
  - c. Bere izena eta helbidea idatzita ikus ditzan.
5. Eskolara joan aurretik, zer egin behar da?
  - a. Eskolaz hitz egin, baina ez gehiegi.
  - b. Eskolaz ahalik eta gehiena hitz egin.
  - c. Eskolako gauza on guztiak aipatu.
6. Zer gertatzen zaie haurrei espazioarekin?
  - a. Lehen egunean ongi egokitzen dira espazio berrira.
  - b. Aldez aurretik haurrak lekua ezagutzea komeni da.
  - c. Inguru zabala behar dute, aterik gabekoa.
7. Helduekin nolako harremana izan behar dute haurrek?
  - a. Haurrak helduen kontrolpean dagoela sumatu behar du.
  - b. Helduak bere mundua duela ikusi behar du haurrak.
  - c. Helduak haurra kontrolatu behar du, baina haurrak heldua ez.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

|       |     |     |     |     |     |     |     |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| 0.- b | 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- | 6.- | 7.- |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|

## ENTZUMENA

### 2. TESTUA

Orain, aditu batek haurren lehenengo eskola-egunei buruz hitz egingo du. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean erantzun zuzena aukeratu. 0 zenbakia adibidea da.

#### Adibidea:

0. Zer gertatzen zaio haurrari eskolan hastean?

- a. Taldetik banatu behar du.
- b. Etxea utzi behar du eta taldean sartu.
- c. Gustuko giroan murgilduko da bere taldean.

1. Eskolan zer ikasi behar du umeak, besteak beste?
  - a. Besteen atzetik zain egoten.
  - b. Batzuetan besteen aurretik jartzen.
  - c. Ilaran oztopo ez izaten.
2. Lehen egunean zer gertatzen zaie?
  - a. Erreferentziak bilatu behar dituzte.
  - b. Nortasuna indartu egiten zaie.
  - c. Ezagunak agurtzen dituzte.
3. Nola bidali behar dira haurrak eskolara?
  - a. Arropa berria eta dotorea jantzita, seguru sentitzeko.
  - b. Erantzeko erraza den arropa jantzita.
  - c. Edozein arropa jantzita, kolore alaiak baditu.
4. Zertarako da garrantzitsua haurrari lehen egunetan "txartela" jartzea?
  - a. Bere burua baztertuta ikus ez dezan.
  - b. Izena entzutean ezaguna dela ikus dezan.
  - c. Bere izena eta helbidea idatzita ikus ditzan.
5. Eskolara joan aurretik, zer egin behar da?
  - a. Eskolaz hitz egin, baina ez gehiegi.
  - b. Eskolaz ahalik eta gehiena hitz egin.
  - c. Eskolako gauza on guztiak aipatu.
6. Zer gertatzen zaie haurrei espazioarekin?
  - a. Lehen egunean ongi egokitzen dira espazio berrira.
  - b. Aldez aurretik haurrak lekua ezagutzea komeni da.
  - c. Inguru zabala behar dute, aterik gabekoa.
7. Helduekin nolako harremana izan behar dute haurrek?
  - a. Haurrak helduen kontrolpean dagoela sumatu behar du.
  - b. Helduak bere mundua duela ikusi behar du haurrak.
  - c. Helduak haurra kontrolatu behar du, baina haurrak heldua ez.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

|       |     |     |     |     |     |     |     |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| 0.- b | 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- | 6.- | 7.- |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|

## ENTZUMENA

### 3. TESTUA

Jarraian, Joseba Barandiaran kazetariak ekonomoari buruzko **berri bi** komentatuko ditu. Berri bakoitzak hiru aukera ditu, eta entzundakoa ondoen adierazten duena aukeratzea izango da zure egitekoa. Horretarako, paragrafo zuzenaren letra laukitxoan sartu.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

#### Lehenengo berria

**Joseba Barandiaranen ustez, Garoña ixtean zein izango dira ondorioak?**

A.- Barandiaranen ustez, Gobernuak benetako prezio eta arriskuei buruzko zenbait datu argi eta garbi azaldu beharko lituzke. Horrela, jendeak erabakiko luke zer nahi duen: energia arriskutsua eta merkea edo segurua eta garestiagoa.

B.- Barandiaranen ustez, iritzia osatzeko datuak badira eta erabakia hartu behar da. Herritarren esku dago energia merkea eta arriskutsua erabiltzea edo garestia eta segurua. Orain datuak alderatzeko ordua da eta erabakiak hartzekoa.

C.- Barandiaranen ustez, kontsumitzaileengan eragina pixkanaka nabarituko da, arriskuak eta kostuak konparatzen direnean eta eskertzekoa da gobernuak eztabaida sortu izana, energia merkea eta arriskutsua edo garestia eta segurua erabili erabakitzeko.

**Lehenengo berria. Idatzi aukera zuzena**

#### Bigarren berria

**Argindarraren merkatuaren liberazioaz zer dio Joseba Barandiaranek?**

A.- Orain arte argindarraren salmenta liberalizatua egon da eta ez da prezioa merkatu. Hemendik aurrera, beharbada, enpresa handien arteko lehia dela eta prezioek behera egingo dute.

B.- Oraingo honetan argindarraren salmenta liberalizatu da, eta hainbat aukera izango ditugu argindarra kontsumitzeko. Dena den, argindarraren prezioak gora egiteko joera du.

C.- Orain liberalizatu dira argindarraren garraioa, ekoizpena eta salmenta. Aurrera begira, kontsumitzaile txikiek lau edo bost aukera izango dituzte argindarra prezio hobean eskuratzeko.

**Bigarren berria. Idatzi aukera zuzena**

# IRAKURMENA ETA IDAZMENA

## IRAKURMENA 1. TESTUA

Ondoren, egunkariko hainbat albiste labur irakurriko dituzu.

### Egitekoa

Albiste bakoitzari bere **izenburua** aurkitu behar diozu. Lotu letrak eta zenbakiak eta idatzi erantzuna laukietan, adibidean bezala. (2 izenburu soberan geratuko zaizkizu).

#### A

*Azken asteotan polemika sortu dute Ryanair hegazkin konpainiak dirua aurrezteko indarrean jarri nahi dituen neurriek. Ez dirudi, ordea, oraingoz gauzak hain gaizki doazkionik. Lehen hiruhilekoan, apiriletik ekainera, 136,5 milioi euro irabazi ditu, iaz epe berean baino ia zazpi aldiz gehiago. Erregaiak merkatu izanak lagundu dio horretan.*

#### B

600 metrotik beherako sakoneran bizi den Macropinna microstoma espezieko arrainek oso begi bereziak dituzte: aurrekoa, goikoa eta behekoa ez ezik atzekoa ere ikusteko ahalmena dute, Kalifornian egindako ikerketa batek agerian utzi duenez. Izan ere, burua gardena du espezie bitxi honek; zientzialariak orain ohartu dira noranzko guztietara begiratu ahal izatea dela horren helburua.

#### C

**Azken aldian areagotu egin da animaliangandik gizakiengana igarotzen den gaixotasun kopurua, eta maskotak dituzten pertsonen artean gaixotasunak kutsatzeko gero eta beldur handiagoa dago. Baina ikerlariek diote okerragoa dela eskuak ez garbitzea txakur batek aurpegian miatzatzea baino.**

#### D

Energia nuklear tradizionala fisiozkoa da eta hark sortutako hondakin erradiaktiboak gordetzeak zer arazo sortzen dituen ezaguna da. Hondakin nuklearren gordeleku asko bete-beteta daude eta gehiago topatzea oso zaila da.

Itxaropena fusio nuklearra da: ez du ez CO<sub>2</sub>rik ez hondakinik sortzen. Orain Texas-eko Unibertsitateko ikerlari talde batek esan du fisioz sortutako elementuei fusioaren printzipioak aplikatuz elementu erradioaktiboak desagerrarazi daitezkeela, eta lortu egin dutela, gainera. Nola? Ez dute esan, baina egia izanez gero, energia nuklearrari izugarrizko bultzada emango lioke.

#### E

*Kontrako noranzkoan zihoan auto batek beste bat jo eta hiru lagun zauritu dira gaur goizean Donostian. Suhiltzaileek adierazi dutenez, 6:40an gertatu da istripua N-364 errepideko 0 kilometroan. Biribilgunean kontrako errailean sartu da autoa eta bestea jo du.*

*Norabide zuzenean zihoan gidaria erietxera eraman dute, zauri larririk gabe, eta beste autoko bi pertsonak istripuaren lekuan artatu dituzte, zauri arinak ziztutelako.*

*Suhiltzaileek jakinarazi dute puntu horretan istripu asko egon direla.*

#### F

**Aranzadi Zientzi Elkarteak Arrasateko Lezetxikiko aztarnategian indusketak egiten ari da hamalagarren aldiz, eta aurten Behe Paleolitoko hartz baten bi hezurdura oso eta gizakien tresnak aurkitu dituzte. Aranzadik proiektuarekin jarraitu nahi du, "oraindik %20 falta baita induskatzeko". Jose Migel Barandiaran izan zen haitzulo hori ikertzen lehena, 1956tik 1968ra arte.**

#### G

*Orain arte ezagutzen ziren zulo beltzen tamaina eguzkiarena baino milioika aldiz handiagoa da. Baina Frantziako Espazio Izpien Ikerketarako Zentroko astrofisikariek adierazi berri dutenez, eguzkiaren masa baino 500 aldiz handiagoa besterik ez den zulo beltza aurkitu dute Lurretik 290 milioi argi-urtera.*

*Zentroko Sean Farrell ikerlariaren arabera, zulo beltz handiak zulo beltz ertainen arteko elkarketaren ondorio izan daitezke; beraz, egiaztatzeko bidean izan daiteke orain arte teoria hutsa izan dena.*

#### H

Hamar pertsona osasuntsuren larruzalaren hainbat zati aztertu ondoren, bakterioei zegozkien 112.000 sekuentzia genetiko identifikatu zituen zientzialari talde batek. Gehienak besoan zeuden; gutxien, belarriaren atzean.

Lotu izenburuak eta albisten letrak eta idatzi erantzunak beheko laukietan, adibidean bezala (bi izenburu soberan dituzu).

## ALBISTEEN IZENBURUAK

### Adibidea:

#### ***0. Galerak saihetsi dituzte***

1. Biltegi kutsatuen arazoari aurre egiteko aukera
2. Oraingoan garrantzi gutxiko ondorioak leku arriskutsuan
3. Norberak neurriak hartzea onena, besteren beldurrik izan gabe
4. Oztoporik ez alde guztietako irudiak hartzeko
5. Bi hartz gutxiago gure mendietan
6. Lurpeko altxorak ez dira agortu
7. Gorputz adarra kokagune nagusi
8. Txikiagoak elkartuta handiak sortu ote ziren ikertzen
9. Eguzkiaren masa handitzen ari da

*Aukeratu testuen izenburuak eta idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.*

|      |    |    |    |    |    |    |    |
|------|----|----|----|----|----|----|----|
| A- 0 | B- | C- | D- | E- | F- | G- | H- |
|------|----|----|----|----|----|----|----|

## IRAKURMENA 2. TESTUA

### **1. egitekoa**

Irakurri testua eta ondorengo galderari erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi letra beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

# Pickford Txikia



Gaur bezalako egun batez, 1979ko maiatzaren 29an Mary Pickford izenaz gogoratzen dugun aktore eta zinegilea zendu zen. 87 urte zeuzkan, **zimurrez** beteta egongo zen seguru, eta hala ere Mary Pickford-ek ez zion inoiz neskatila izateari utzi.

Hamabost urterekin bere jaioterriari agur esan (Torontokoa zen izatez) eta New Yorkera egin zuen alde. Garai hartan Hollywood sortzeke zegoen, eta zine industria Sagar Handian garatzen zen. Gladys Smith glamourrik gabeko izena atzean utzi eta hamasei urterekin bere lehenengo pelikula mutua egin zuen, David Wark Griffith-en zuzendaritzapean. "Hau zortea nirea" pentsatuko zuen neskatilak. Noski, Gladys Smith-ek ez zekien hurrengo hogeitun urteetan paper bera errepikatzen mugatu beharko zuela: neskatila inozentea eta samurra, gizon ausart bati esker arriskutik libratuta, azken minutuan beti.

1925. urtean, Pothoplay aldizkariak hurrengo galdera luzatu zien bere irakurleei: Zein paperetan ikusi nahiko zenuke Mary Pickford? Erantzunak argigarriak izan ziren: Heidi, Errauskine, Txanogorritxu, Alice lurralde miresgarrian... Etsipenez hartu zituen Mary Pickford-ek iradokizunok: zegoeneko 32 urte zeuzkan, baina garaiera txikikoa zen, eta ile-kiribilek ume-itxura ematen zioten. Nork esan zuen, bada, baten adina barne-izpirituak baldintzatuta dagoela? Ez, lagunok, besteek nola ikusten gaituzten, adin hori daukagu.

Pickford neskatila bihozbera zen, Amerikako sweetheart txikia. Urteek aurrera egiten zutela? Pickford emakume bilakatu, eta behin baino gehiagotan dibortziazten zela? United Artists zine-konpainia sortu eta produktore ahalguztiduna bihurtu zela? Hori publikoari bost axola zitzaion. Ile-kiribilak moztu eta neskatila inozoaren paperetik irten zen aldi bakanetan, porrota baino ez zuen dastatu. 1933. urtean egin zuen azken pelikula. Ondoren depresioa, isolamendua eta alkoholismoa. Gogorra da neskatila tolesgabea izatea betiko.

Katixa Agirre. *Deia*, 2009/05/29

## Adibidea:

0. Zer dio artikuluak Pickford-ek egin zuen lehen filmaz?

- United Artist zine-konpainiarekin grabatu zuela.
- Pertsona mutu batekin lan egin zuela.
- Ahotsezko filmak sortu baino lehenagokoa zela.

1. Nolakoa zen Pickford itxuraz?

- Bere zahartzaroan ere aurpegi leuna zuen, neskatila batena.
- Neskatila gaztea zela ere, aurpegi zimurra ageri zitzaizkion.
- Laurogeitaka urterekin, aurpegi zimurra bai, baina gazte ikusten zuten.

2. Zer paper egin zuen Pickford-ek filmetan?
  - a. Urte askotan neskatxa inozoaren papera egitea egokitu zitzaion.
  - b. Txanogorritxo, Errauskine eta horrelakoak antzeztea zuen gogoko.
  - c. Neska ausartarena ere egin zuen hainbat film arrakastatsutan.
3. Antzezlea izateaz gain, beste lanbiderik izan zuen?
  - a. Zine ekoizle ere izan zen.
  - b. Hollywood-en sortzaile izan zen.
  - c. Pothoplay-rako lan egin zuen.
4. Nolakoa izan zen Pickford bere bizitzan?
  - a. Jendeak ikusten zuen bezalakoa, neska zoriontsua eta bihotz onekoa.
  - b. Ez zuen bizitza zoriontsua izan, jendeak bestela uste bazuen ere.
  - c. Filmen arrakastak bizitza erraztu zion, zorte handia izan zuen beti.
5. Zein da idazlearen iritzia Pickford-en adinaren inguruan?
  - a. Nolako animua eta izpiritua izan, halako adina izaten da.
  - b. Adinak berak baldintzatzen du norberaren barne egoera.
  - c. Kanpokoek nola ikusten gaituzten, halako adina izango dugu.
6. Idazleak zergatik jarri du *Pickford txikia* artikulua izenburuan?
  - a. Izen horrekin ezagutzen delako artikulua pertsonaia.
  - b. Bere bizitza artistikoan ia beti neskatilaren papera egin zuelako.
  - c. David Wark Griffith-ek, bere zuzendariak, izen hori jarri ziolako.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

|       |     |     |     |     |     |     |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| 0.- c | 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- | 6.- |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|

## 2. egitekoa

Testuan **hitza** aurkitu.

Ondoren **2** azalpen irakurriko dituzu. Azalpenari dagokion **hitza** testuan aurkitu behar duzu.

Idatzi hitza laukian, adibidean egiten den bezala.

### Adibidea:

**0. (1. paragrafoan)**

*Larruazaleko tolesa.*

**zimurra**

**1. (4. paragrafoan)**

Oker atera, huts egin, espero zena ez lortu

**2. (4. paragrafoan)**

Hutsegiteak barkatzeko joera duena

## IRAKURMENA

### 3. TESTUA

Kirmen Uribe *Berrian* idatzitako zutabe bat irakurriko duzu.

Irakurri testua eta ondorengo galderi erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi letra beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

## Oporretan edo



MaraTILa  
KIRMEN URIBE

Astegun buruzuri batean aurkitu nuen kalean mutila. Aspaldiko laguna zen, urteak ziren elkar ikusten ez genuela. Banekien bera lantegi batean hasi zela lanean gu gazte ginelarik, gutariko aurrenetakoa izan zen ikasketak bukatu eta lanpostua lortzen. Geroztik, behin edo behin gertatu gara elkarrekin. Horrexegatik harritu ninduen hura kalean ikusteak, astegun buruzuri batean eta laneko orduetan, erosketak egiten.

Lagunak argitu zidan badirela hilabete batzuk ostiraletan lan egiten ez dutena, astean lau egun baino ez dutela lan egiten fabrian, eta gabonetako oporrak ere hamabost egunetakoak hartuko zituztela. «Sekula ez dut gabonetan horrenbeste egun libre izan», esan zidan berak. «Ikasle garaietatik, hain zuzen». Oporrak egoera ekonomikoak

bultzatuta hartu behar izan dituzte. Esaldi bakar batekin azaldu zidan beren egoera. «Etixerik egiten ez denez, sukalderik ere ez da muntatzen, eta gure lantegian sukalderako plakak egiten ditugu. Eskaririk ez dagoenez, ezin dugu lanik egin». Arduratuta zegoen laguna, baina, hala ere, gauzak alde onetik ikusten ahalegintzen zen, gazteak ginenean bezala. «Irakurtzeko astia dut orain, aspalditik mesanotxean pilotuta ditudan liburuak bukatuko ditut gabonetako oporretan».

Laguna agurtu eta etxerantz egin nuen neuk ere. Bidean Marxen utopia hartaz gogoratu nintzen. Marxek uste zuen noizbait gizakiak aisialdia baino ez duela izango, lanik egingo ez den garaia iritsiko dela goiz edo berandu. Dena den, ez dut uste egoera ekonomiko okerrak bultzatutako derrigorrezko aisialdi honetaz ari zenik.

## Adibidea:

0. Norekin egin du topo idazleak?

- a. Ikaskide batekin.
- b. Familiako kide batekin.
- c. Auzoko batekin.
- d. Ezezagun batekin.

1. Zergatik harritu da idazlea mutila kalean ikustean?

- a. Lanean hasi berria zelako.
- b. Lana amaitu berritan ikustea ez zuelako espero.
- c. Erosketak egiten ez zuelako inoiz ikusi.
- d. Astean zehar han ikustea ez zuelako espero.

2. Zergatik hartu ditu oporrak?

- a. Lan asko egin dutelako aurretik.
- b. Lan egoera ez delako ona.
- c. Berak eskatu dituelako.
- d. Atsedena behar zuelako.

3. Nola sentitzen da laguna?

- a. Erabat etsita dago.
- b. Kezkatua, baina baikor.
- c. Pozik, beti bezala.
- d. Ez dakigu nola dagoen.

4. Zer zioen Marxen utopiak?

- a. Lanik ez genuela egin beharko.
- b. Aisialdia behar-beharrezkoa dugula.
- c. Gaurko egoera aurreikusi zuen.
- d. Gizakiak beti lana egin beharko zuela.

5. Zer adierazten du idazleak bere artikuluan?

- a. Derrigorrezko aisialdiak beharrezkoak direla esan nahi digu.
- b. Egoera ekonomiko kezkarri baten ondorioak azaltzen ditu.
- c. Egoera ekonomikoari irtenbideak proposatzen ditu.
- d. Egoera ekonomikoaren aurrean etsipena erakusten du.

*Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:*

|       |     |     |     |     |     |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|
| 0.- a | 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- |
|-------|-----|-----|-----|-----|-----|

## IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula (**200 hitz**).
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).
- Zure idazlana zuzentzean, arlo hauek hartuko dira kontuan:
  - egitekoa
  - testuaren antolaketa eta garapena
  - euskararen egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna

Herriko aldizkarian aste honetako iritzi-artikulua idaztea tokatu zaizu. Gaia honako hau da:

### **ZER EGIN ORAINDIK ESKOLAN HASI EZ DIREN HAUR TXIKIEKIN?**

**Iritzia emateko**, zure esperientzian edo ingurukoenean oinarrituta, **ondoko puntu hauek erabil ditzakezu**:

- Lan egiten duten gurasoen arazoa
- Zer egin haurrekin: etxean zaindu ala haurtzaindegi batera bidali?
- Nori eskatu laguntza: aitona-amonei ala ezezagun bati?
- Erakundeen papera (diru-laguntzak, bi urteko gelak...)
- Aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak



**Zirriborroetarako orria**  
(orri hau ez da zuzenduko)

EZTABAIDAGUNEA

**ZER EGIN ORAINDIK ESKOLAN HASI EZ DIREN HAUR  
TXIKIEKIN?**

---

---

---

---

5

---

---

---

---

10

---

---

---

---

15

---

---

---

---

20

---

---

---

---

25

---

---

---

---

30

---

---

---

---

---

35

---

---

---

---

---

40

---

---

---

---

---

45

---

---

---

---

---

50

---

---

---

---

---

55

---

---

---

---

---

60

---

---

---

---

---

65

---

## BIGARREN MAILAKO AZTERKETA ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

### BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

|  |            |              |                     |                  |               |
|--|------------|--------------|---------------------|------------------|---------------|
| <b>Proba idatzia</b><br><b>50</b><br><b>gutxienez 28</b> | Irakurmena | % 20         | gutxienez 10        | 20 puntu         | 45 min inguru |
|  | Idazmena   | % 30         | gutxienez 15        | 30 puntu         | 60 min inguru |
| <b>Ahozko proba</b><br><b>50</b><br><b>gutxienez 27</b>  | Entzumena  | % 20         | gutxienez 10        | 20 puntu         | 25 min inguru |
|  | Mintzamena | % 30         | gutxienez 15        | 30 puntu         | 10 min inguru |
| <b>GUZTIRA</b>   |            | <b>% 100</b> | <b>gutxienez 55</b> | <b>100 puntu</b> |               |

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

#### Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

**IKUSPEGI OROKORRA.** Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

**BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA).** Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu motari dagokion egitura.

**ZUZENTASUNA.** Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.